

Ebazpena: R 55/2022

Espedientea: 22/2014

Vitoria-Gasteizen, 2022ko irailaren 13an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Violeta Ruiz Almendral andrea batzordeburu eta Sofía Arana Landín andrea eta Javier Muguruza Arrese jauna batzordekide dituenak, honako erabaki hau hartu du:

ERABAKIA

Bizkaiko Foru Aldundiak (aurrerantzean, BFA) Zerga Administrazioako Estatu Agentziari (aurrerantzean, ZAEA) BSLren zerga-egoitza 2011ko maiatzaren 26tik aldatzeari buruz aurkeztutako gatazkari buruzkoa, zeina Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari baita, 22/2014 espediente-zenbakiarekin.

AURREKARIAK

1.- BSL 2011ko maiatzaren 16an eratu zuten MGD jaunak (helbidea Logroñon du) eta duen BVDSLk (Madril, Paseo de la Castellana, 93, 13). Planteatutako gatazkaren ondorioetarako, honako hauek dira BSLren datu garrantzitsuenak:

- a) Egoitza soziala eta fiskala Bilbon ditu.
- b) MGD jauna administratzaile bakar izendatu da.

c) Sozietatearen helburua mota guztietako edariak eta elikagaiak salerostea, esportatzea eta inportatzea da.

2.- BSL alta emanda dago Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan, 1 61210 epigrafean (Mota guztietako elikagaien, edarien eta tabakoaren handizkako merkataritza). 2011ko maiatzaren 26an 036 eredia aurkeztu zuen BFA-n, epigrafe horretako jarduera ekonomikoen eroldan alta emateko, eta 2011ko uztailaren 18an hasi zen jardunean, Bilboko helbidean.

Bilboko helbidean du egoitza SSL negozio-zentroak, eta BSLk harekin ditu kontratatuta zerga-helbideratzearen eta korrespondentzia jasotzearen zerbitzuak, berankortasunagatik kontratua deuseztatu zen arte.

3.- 2012ko uztailaren 27an, BSLk 036 eredia aurkeztu zuen BFA-n, egoitza soziala Bilbora aldatu zuela jakinarazteko. Aldaketa hori 2012ko urtarrilaren 20an eskrituratu zen, 2012ko otsailaren 21ean inskribatu zen merkataritza-erregistroan, eta 2012ko martxoaren 1ean argitaratu zen.

Helbide horretan du egoitza UHSLk, zeinak 2011ko abenduaren 29an kontratu bat sinatu baitzuen BSLrekin, legezko helbideratze-zerbitzuak eta paketeria-harrerakoak emateko. Kontratu hori egiteari utzi zioten, BSLren berankortasunagatik. Kontratu horretan BSLren helbide gisa Lardero (Errioxa) agertzen da.

4.- 2013ko apirilaren 29an, berriz ere, 036 ereduaren bidez, jakinarazpenetarako helbide berri bat jakinarazi zuen, Logroñon.

5.- BSLk ez du ez establezimendurik ez langilerik Bizkaian. Errioxan egiten du bere jarduera.

6.- 2013ko uztailaren 24an, BFAk ZAEArri jakinarazi zion BSLren egoitza Errioxara aldatzeko proposamena, 2011ko maiatzaren 26ra arteko atzeraeraginarekin.

5.- Bi hilabete igaro ondoren, Ekonomia Itunarekin eta Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen Erregelamenduarekin bat etorritik, *ratione temporis* indarrean zeuden idazketetan, ZAEAk proposamen horri erantzun ez zionez, BFAk gatazka planteatu zuen Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordean, 2014ko maiatzaren 13an.

6- Gatazka prozedura arruntaren bidez izapidetu da, eta, beraz, bete egin da izapidea ZAEAk alegazioak egin eta froga eta dokumentazio egokiak aurkeztu eta proposatu ditzan. ZAEAk izapide hori betetzeko epea luzatzeko eskatu ondoren, azkenean, amore eman da eta, beraz, onartu egin da BFAk proposatutako egoitza-aldaketa.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena

Arbitraje Batzordeak gatazka ebazteko eskumena du, Ekonomia Itunaren 66.Bat.c) artikuluan xedatutakoaren arabera, berari esleitzen baitio *Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea*.

2.- Amore ematea

Pertsona interesdunik eta, bereziki, zergapekoa bera pertsonatu ez denez, ZAEAk amore eman eta BFAk egindako helbide-aldaketaren proposamena onartzeak bi Administrazioen arteko gatazka bertan behera geratzea eragin du,

eta Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen aurrean bideratzen den prozeduraren xedea galtzea eta, ondorioz, artxibatzea ekarri du.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

ERABAKI DU

1.- Gatazka artxibatzea, ZAEAk BSL SLren egoitza aldatzeko proposamenari amore ematearen ondorioz prozeduraren xedea galdu izanaren ondorioz, 2011ko maiatzaren 26ra arteko atzeraeraginarekin.

2.- Erabaki hau Zerga Administrazioako Estatu Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta BSL SLri jakinaraztea.